

PRENTSA OHARRA
NOTA DE PRENSA

AHOLKU – SAREAK HAZTEN JARRAITZEN DU ARRETARAKO GUNE BERRIEKIN, BAITA ARTATUTAKO PERTSONEN ETA KONTSULTEN KOPURUAN ERE

- 2024an bakarrik aurrez aurreko arretarako bost gune berri zabaldziren: Durangon, Ermuan, Bilbon, Mutrikun eta Donostian; eta 2025 honetan beste bat ere zabaldu da, Bergaran
- Nerea Melgosa sailburuaren ustez, sareak "etorkizuna elkarrekin eraikitzea eta pertsona guztientzako ongizate-kuota handiagoak dituen herrialde gisa haztea" du helburu

Donostia, 2025/02/14

Aholku – Sarea, Atzerritartasunaren arloko Arreta Juridikorako Euskal Sareak herritarrei zuzendutako arretarako gune berriak zabaltzen jarraitzen du, eta artatutako kontsulten kopuruak ere gora egiten jarraitzen du, Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren sailburu Nerea Melgosak gaur emandako prentsurrekoan azaldu duenez. Hain zuzen ere, zerbitzuak 35 informazio-gune ditu hiru lurralteetan banatuta, eta aurten bertan azken informazio-gunea zabalduko dute Bergaran. 2024an, sareak bost bulego berri zabaldu zituen: hiru Bizkaian (Bilbo, Durango eta Ermua) eta bi Gipuzkoan (Donostia eta Mutriku).

Melgosak adierazi duenez, sarea Eusko Jaurlaritzak sustatzen du, eta lau eragile motak osatzen dute. Eragile horiek atzerritartasunaren arloan informazioa, orientazioa eta aholkularitza juridikoa ematen laguntzen dute. "Aholku – Sareak immigranteen erregularizazioa erraztea du helburu, baita gerora ager daitekeen irregulartasuna prebenitzea ere, familia-bizitza laguntzen saiatuz une oro".

Sailburuak nabarmendu duenez, "etorkizuna elkarrekin eraikitzeko eta pertsona guztientzako ongizate-kuota handiagoak dituen herrialde gisa hazteko" sarea da, eta "bizi-kalitatea, ongizatea eta eskubide-berdintasuna sustatzen dituen lankidetza-proiektu handinahia ere bada".

Hauek dira zerbitzua ahalbidetzen duten eragileak:

- Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saileko Etorkinen Harrera eta Integrazioko Zuzendaritza.
- Biltzen – Laguntza Juridiko, Gizarteratze eta Kulturarteko Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua; hau ere Eusko Jaurlaritzari lotua.
- Hiru lurralte historikoetan jarduten duten zortzi gizarte-erakunde: Zehar-Errefuxiaturekin, Gurutze Gorria - Euskadi, Bilboko Cáritas Diocesana,

900 840 111

EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES



Kosmopolis, SOS-Arrazakeria Gipuzkoa, Bidea Eginez, Cite-CCOO eta Adiskidetuak.*

- Eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoak.

Aholku – Sarea

Aholku – sarea kalteberatasun-egoeran dauden etorkinei, eta etorkinekin gizarteratzeko prozesuetan lan egiten duten Administrazio Publikoetako eta irabazi-asmorik gabeko erakundeetako profesionalei zuzendutako zerbitzua da. Zerbitzu honek bi arreta mota ematen ditu:

- Aurrez aurreko arreta, gizarte-erakundeek eta Abokatuen Elkagoetako Saje Txandetako legelariek eskainia.
- Bertaratu beharrik gabeko arreta, posta elektronikoz edo telefonoz, Biltzenek eskainia.

Bi kasuetan, edozein kontsultaren aurrean, hiru orientabide posible daude egiteko: edo egindako kontsulta zuzenean ebazten da; edo kasua erakunde jakin batera bideratzen da, hobeto ebatz dezan; edo deribazioa proposatzen da Saje Txandako letradu bat izenda dadin. Etorkinen Harrera eta Integracioko Zuzendaritzak izapideetako ditu hiru lurrardeetako Abokatuen Elkagoetara bideratzeak.

2024a zifretan

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE-KO GUZTIZKOA
Hirugarren Sektoreko Erakundeek artatutako pertsona eta profesionalen kopurua	2.342	6.072	2.972	11.386
Hirugarren Sektoreko Erakundeek jasotako kontsulten kopurua	2.453	9.122	9.696	21.271
Biltzenek artatutako pertsona eta profesionalen kopurua	468	1.700	926	3.094
Biltzenek jasotako kontsulten kopurua	929	3.403	1.856	6.188
Elkagoetara bideratutako kasuen kopurua	45	281	82	408

Iaz bakarrik, 14.480 pertsona eta profesional artatu zituen sareak; eta gehien-gehienak, 11.386, aurrez aurreko arretarako guneen bidez iritsi ziren zerbitzura. Guztira, 27.459 kontsulta jaso eta artatu zituzten, eta 408 kasu abokatuen elkagoetara bideratu zituzten. 2023an artatutakoak baino ia 4.000 kontsulta gehiago izan dira (23.592 kontsulta erantzun zituzten urte horretan).

Erabiltzaileen eta egindako kontsulten ehunekoari eta generoari dagokienez, oro har, ehunekoak antzekoak dira jarduten duten eragile guztieta. Sarean, oro har,





erabiltzaileen % 56 emakumeak dira eta % 44 gizonak; kontsulten % 61 emakumeek egiten dituzte eta % 39 gizonek.

Artatutakoen nazionalitate nagusiak hauek dira: Kolonbia, Maroko, Venezuela, Peru, Honduras, Nikaragua, Bolivia, Nigeria, Senegal eta Aljeria. Eta kontsultatutako gai nagusiak honako hauekin lotuta daude: salbuespenezko inguruabarren ondoriozko baimenak (errotze soziala, prestakuntzarako errotzea, familia-errotzea); baimenak berritzea, luzatzea eta aldatzea; berriz elkartzea; ikasketengatiko egonaldia; edo Erregelamendu berriari lotutako gaiak.

2024an ere, Bilbon lehenengo Harreragunea jarri zen martxan. Migratzaileentzako Harrerarako Euskal Zerbitzuaren eredu pilotua da. Migratzaileei informazioa eta orientazioa emateko zerbitzu publiko espezializatua da, Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak sortua eta Zehar-Errefuxiatuekin erakundeak kudeatua, eta Aholku – Sarearen laguntza juridikoa du.

"Euskal Autonomia Erkidegora iristen diren migratzaileei arreta emateko tresnak eta konpromisoa ditugu, hain zuzen ere, Migraziorako Euskal Itun Sozialaren leloak —'jaso nahiko genukeena eskainiz'— dioen bezala", esanez amaitu du Melgosak.

**Hau da aurrez aurreko aholkularitza ematen duten gizarte-erakundeen lurraldetanaketa:*

- **GIPUZKOAN** erakunde hauek ematen dute laguntza juridikoa: Adiskidetuak (Irungo udal-bulegoan), Gurutze Gorria (Donostian eta Eibarren dituen bulegoetan) eta SOS-Arrazakeria Gipuzkoa (Arrasaten, Zarautzen, Beasainen, Errenterian, Tolosan, Urretxun, Mutrikun, Azpeitian eta Bergaran dituen bulegoetan) eta Zehar-Errefuxiatuekin (Donostian duen bulegoan).
- **ARABAN** erakunde hauek ematen dute laguntza juridikoa: Zehar-Errefuxiatuekin (Gasteizen duen bulegoan) eta Gurutze Gorria (Gasteizen, Laudion, Agurainen, Amurrio Espejon, Kanpezun, Oionen eta Guardian dituen bulegoetan).
- **BIZKAIAN** erakunde hauek ematen dute laguntza juridikoa: Cite/CCOO (Bilbon duen bulegoan eta Bermeo, Gernika, Zalla eta Mungiako udal-bulegoetan), Caritas (Bilbon duen bulegoan), Gurutze Gorria (Bilbon, Getxon, Barakaldo, Portugaleten, Ondarroan eta Ermuan dituen bulegoetan), Zehar-Errefuxiatuekin (Bilbon duen bulegoan), Kosmopolis (Getxon duen bulegoan) eta Bidea Eginez (Zornotzan, Markinan, Lekeitio, Durangon eta Ermuan dituen udal-bulegoetan).





AHOLKU – SAREA SIGUE CRECIENDO CON NUEVOS PUNTOS DE ATENCIÓN Y TAMBIÉN EN NÚMERO DE PERSONAS Y CONSULTAS ATENDIDAS

- Solo en 2024 se sumaron cinco nuevos puntos de atención presencial: en Durango, Ermua, Bilbao, Mutriku y Donostia; y en este 2025 ya está abierto uno más, en Bergara
- La consejera Nerea Melgosa considera que la red busca “construir el futuro, juntos y juntas, y crecer como país con mayores cuotas de bienestar para todas las personas”

Donostia – San Sebastián, 14/02/2024

La Red Vasca de Atención Jurídica en materia de Extranjería, Aholku – Sarea, sigue ampliando sus puntos de atención dirigidos a la ciudadanía, así como crece el número de consultas atendidas, según ha explicado hoy en rueda de prensa la consejera de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico del Gobierno Vasco, Nerea Melgosa. En concreto, el servicio cuenta con 35 puntos de información repartidos por los tres territorios, con la apertura en Bergara, este mismo año, del último de ellos. En 2024 año la red sumó cinco oficinas: tres en Bizkaia (Bilbao, Durango y Ermua) y dos en Gipuzkoa (Donostia – San Sebastián y Mutriku).

La red, según ha indicado Melgosa, está promovida por el Gobierno Vasco y conformada por cuatro tipos de agentes, que colaboran para prestar información, orientación y asesoramiento jurídico en materia de extranjería. “Los objetivos que persigue Aholku – Sarea son facilitar la regularización de las personas inmigrantes, así como prevenir la irregularidad sobrevenida, intentando en todo momento favorecer la vida en familia”.

La consejera ha destacado se trata de una red “para construir el futuro, juntos y juntas, y crecer como país con mayores cuotas de bienestar para todas las personas”, y que “también es un ambicioso proyecto de colaboración que promueve la calidad de vida, el bienestar y la igualdad de derechos”.

Los agentes que hacen posible su servicio son:

- La Dirección de Acogida e Integración de las Personas Inmigrantes del Departamento de Bienestar, Juventud y Reto Demográfico del Gobierno Vasco.
- Biltzen – Servicio Vasco de Asistencia Jurídica, Integración y Convivencia Intercultural, también vinculado al Gobierno Vasco.
- Ocho entidades Sociales que operan en los tres territorios históricos: Zehar-Errefuxiatuekin, Cruz Roja-Euskadi, Cáritas Diocesana de Bilbao, Kosmópolis, SOS-Arrazakeria Gipuzkoa, Bidea Eginez, Cite-CCOO y Adiskidetuak.*





- Y los tres Ilustres Colegios de la Abogacía de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.

Aholku – Sarea

Aholku – sarea es un servicio dirigido tanto a las personas inmigrantes en situación de vulnerabilidad como a las personas profesionales de las Administraciones Públicas y entidades sin ánimo de lucro que trabajan en procesos de inclusión con personas inmigrantes. Desde este servicio se realizan dos tipos diferenciados de atenciones:

- Atención presencial, ofrecida por las entidades sociales y las y los letrados de los Turnos Saje de los Colegios de la Abogacía.
- Atención no presencia, vía correo electrónico o teléfono, y realizada por Biltzen.

En ambos casos, ante cualquier consulta hay tres posibles orientaciones a realizar: o bien se resuelve la consulta realizada directamente; o se deriva el caso a una entidad en concreto para su mejor resolución; o bien se propone la derivación para que se designe una persona letrada del Turno Saje, siendo la dirección de Acogida e Integración de las Personas Inmigrantes la que tramita las derivaciones a los Colegios de la Abogacía de los tres territorios.

2024 en cifras

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	TOTAL CAPV
Número de personas y profesionales atendidos por las Entidades del Tercer Sector	2.342	6.072	2.972	11.386
Número de consultas recibidas por las Entidades del Tercer Sector	2.453	9.122	9.696	21.271
Número de personas y profesionales atendidos por Biltzen	468	1.700	926	3.094
Número de consultas recibidas por Biltzen	929	3.403	1.856	6.188
Número de Derivaciones a los Colegios	45	281	82	408

Solo el pasado año, 14.480 personas y profesionales fueron atendidas por la red; y la inmensa mayoría, 11.386, accedieron al servicio a través de los puntos de atención presencial. En total se recibieron y atendieron 27.459 consultas y 408 casos fueron derivados a los colegios de la abogacía. Son casi 4.000 consultas más de las atendidas en 2023 (fueron 23.592 las consultas atendidas ese año).

Respecto al porcentaje de personas usuarias y consultas realizadas y el género, en términos generales los porcentajes son similares en todos los agentes que





operan. En términos globales de la red, el 56% de las personas usuarias son mujeres y el 44% hombres; a su vez el 61% de las consultas las realizan mujeres y el 39% los varones.

Las nacionalidades principales atendidas son: Colombia, Marruecos, Venezuela, Perú, Honduras, Nicaragua, Bolivia, Nigeria, Senegal y Argelia. Y las temáticas principales consultadas tienen que ver con autorizaciones por circunstancias excepcionales (arraigo social, arraigo para la formación, arraigo familiar); la renovación, prórroga y modificación de las autorizaciones; la reagrupación; la estancia por estudios; o las cuestiones referidas al nuevo Reglamento.

En 2024 destaca asimismo la puesta en marcha del primer Harreragune en Bilbao. Se trata del modelo piloto del Servicio Vasco de Acogida para Personas Migrantes, un servicio público especializado para la información y orientación de personas migrantes creado por el Gobierno Vasco y el Ayuntamiento de Bilbao y gestionado por Zehar-Errefuxiatuekin, que cuenta con la atención jurídica de Aholku – Sarea.

“Tenemos herramientas y el compromiso para atender a las personas migrantes que llegan a Euskadi como reza, precisamente, el lema del Pacto Social Vasco para la Migración, ‘ofreciendo lo que desearíamos recibir’, ha concluido Melgosa.

**La distribución territorial de las entidades sociales que prestan asesoramiento presencial es la siguiente:*

- En **GIPUZKOA** prestan atención jurídica Adiskidetuak (en la oficina municipal situada en Irún), Cruz Roja (en sus oficinas situadas en Donostia y Eibar/Ermua) y SOS-Arrazakeria Gipuzkoa (en las oficinas municipales situadas en Mondragón, Zarautz, Beasain, Errenteria, Tolosa, Urretxu, Mutriku, Azpeitia y Bergara) y Zehar-Errefuxiatuekin en su oficina situada en Donostia).
- En **ARABA** prestan atención jurídica Zehar-Errefuxiatuekin (en su oficina situada en Vitoria-Gasteiz) y Cruz Roja (en las oficinas situadas en Vitoria-Gasteiz, Laudio, Agurain, Amurrio Espejo, Campezo, Oion y Laguardia).
- En **BIZKAIA** prestan atención Jurídica Cite/CCOO (en su oficina situada en Bilbao, y en las oficinas municipales situadas de Bermeo, Gernika, Zalla y Mungia) Cáritas (en su oficina situada en Bilbao), Cruz Roja (en sus oficinas situadas en Bilbao, Getxo, Barakaldo, Portugalete, Ondarrua y Ermua), Zehar-Errefuxiatuekin (en su oficina situada en Bilbao), Kosmopolis (en su oficina situada en Getxo), y Bidea Eginez (en las oficinas municipales situadas de Amorebieta, Markina, Lekeitio, Durango y Ermua).

